



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-10-23**

VIURTEA 1.541 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo egin zuten ekimen berri honen aurkezpena sustatzaileek. ESTI EZEIZA

INGURUKO MERKATAL ZENTRO «HANDIENEAN» EROSO EROSTEKO

TOLOSA Merkataritza Foroak 'Eroso erosi, Tolosan noski' ekimena jarri du martxan, bertako merkataritza sustatzeko helburuarekin » 24

200 dantzari inguru bilduko dira Dantzari Txiki Egunean

ALEGIA Igande goizean izango da; etzi, 'Herria Kantuan' emanaldiaren DVDa ikusi ahaliko da » 5



Susana Larre eta Miren Lazkano, I.T.

SUSANA LARRE ETA MIREN LAZKANO LIBURUTEGIKO LANGILEAK

«Egunero liburutegia erabiltzen dutenak saritu nahi ditugu»


TOLOSA Bihar ospatuko da Liburutegiaren Eguna; hainbat ekintza egin dituzte aste osoan » 3

zure-irragarkia tolosaldetik eta leitzaldetik euskal herrira

iragarkilaburrak.com
euskal iragarki laburren ataria

tolosaldeko hitza. **iragarkilaburrak.com**

iragarkia jartzeko: www.tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com/ 943-65 56 95/ Araba etorb. 5 atzea • Tolosa / Herriko plaza 1 • Leitza webgunean, ostiralero Euskal Herri osoan paperezko edizioan eta HITZA egunkarian argitaratuko da





Atzo goizean aurkeztu zuten ekimena Zerkausion; bertan izan ziren merkataritza elkarteetako ordezkariak eta Udalekoak. ESTI EZBIZA

250 erosketa karro zozketatuko dituzte Tolosako dendetan

Tolosa » Merkatarien Foroak bertako merkataritza sustatzeko asmoz ekimen berri bat jarri du martxan.

ESTI EZBIZA

Tolosako merkataritza sustatzeko asmoz, ekimen berri bat jarri du martxan Merkataritza Foroak. Alde Zaharra dendak, Igarondo Merkatarien elkarteak eta Tolosako Udalak elkarlanean martxan ja-

rritako egitasmo honekin, Tolosa, inguruko merkatal zentru handiena bezala ezagutzera eman nahi dute.

Jasangarritasuna eta gizarte ekintza lotzen dituen kanpaina Larunbat honetan ekingo diote egitasmoari, eta azaroaren 24a bitartean luzatuko da. *Eroso erosi, Tolosan noski* lelopean gauzatuko dituzte ekintzak. 50.000 eurotik gorako gastua suposatzen duen ekimen honetan, ondorengo jarduerak gauzatuko dituzte. Alde

batetik, iragarki taulak jarriko dituzte Renfeko tren zerbitzuetan. Honez gain, irriti bidez eta buzoiraketarekin egingo dute publizitatea.

Bestetik, Tolosako dendariak Emaus-ekin batera 250 erosketarako karro egin dituzte. Publizitate lona birziklatuekin eginikoak, erosketa karro hauek pieza aparteko eta esklusiboak dira, ez daude eta ez dira egongo bi berdinak. Karro hauek honela lortu ahal izango dira. Alde Zaharra dendak edo Igarondo merkatarien elkarteetako den-

detan erostean, txartel bat jasoko dute bezeroek. Hala, zortea izanaz gero, karrotxo bat irabaziko du erosleak. Baina, txartelean «segi jokatzen» jartzen badu, atzeko aldean dauden hutsunean datuak bete eta beste zozketa batean sartzeko aukera izango dute interesatuek. Bertan, abenduan ospatuko den Txuletaren festarako 12 txartel bikoitz zozketatuko dira. Zozketa hau azaroaren 28an gauzatuko da.

Ekimenaren aurkezpenean, Merkatarien Foroak egindako

lana nabarmendu zuten, hau da, Tolosako merkatarien bi elkarteek, Udalak, Tolosaldea Garatzenek, Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritza saileko aholkularitza teknikokoek. Duela bi urte hasi zen lanean merkataritza mahai hau eta ordutik, hainbat ekintza eraman dituzte aurrera.

Dendariek bultzatutako proiektuen artean daude, aparkalekuen gehitzearena. Atzo Jokin Bilda-

Jendeak Tolosa merkatal zentru handi bat bezala ikustea nahi dute merkataritza Forokoek

Erosketa karroez gain, txuletaren festarako txartelak zozketatuko dituzte merkatariek

rratz kateak adierazitakoaren arabera, «hainbat eskaera egin dizkiete merkatariek Udalekoari, eta hauei esker, besteak beste, egin dugu Rondilla kaleko aparkalekua». Bestalde, bi elkarten arteko elkarlana eta Udalaren arteko nabarmendu nahi izan zuen Bildarrazteak.

Oraingo honekin, jasangarritasunaren alde, eta gizarte kontzientziario bultzatu nahian, karro berezi hauek zozketatzea erabaki du. Izan ere, merkatarien esanetan, «bezeroak ohituta daude, erosketak egiten dituztenean, plastikozko poltsak jasotzen, baina ez dira ohartzen, hau ingurugiroarentzat kaltegarria denik». Hori dela eta, egitasmo honekin bezeroengan eragitea lortu nahi dute. Bestalde, balore sozial batzuk bultzatu nahi dituzte, horren adierazle da, karroen egileak Emausekoak direla.

Etzi, Independentzia eguna ospatzeko deia luzatu dute gazte independentistek

Villabona » Hernanin ospatuko da, egun guztian zehar; aldarrikapen ekitaldiekin batera, festa ere izango da bertan.

ERREDAKZIOA

Independentzia eguna ospatuko dute etzi Hernanin, eta Villabonako gazte independentistek bertara joateko deia luzatzen diete eskual-

deko gazteei. 11:00k aldera hasiko dira ekitaldiak, trikiritxa, txistu eta alboka doinuekin.

Urriaren 25a aukeratu dute independentzia eguna ospatzeko, izan ere, egun honetarako deitu zuten EAJk herri galdeketa. Bestalde, Gernikako Estatutuaren urteurrena ere egun honetan betetzen da. «Egun Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoera» salatuko dute Hernanin, baina aldi berean festarako unea ere izango da.



Villabonako hainbat gaztek bat egin dute Independentzia egunarekin. E. EZBIZA

piak Villabonako Iratzar tabernan salgai daude 1,5 euroren truke.

Independentzia egunari musikarekin emango diote amaiera: Betagarri, Anestesia, Ken7, Neguri Gorriak, Amaiur eta DJ Bullen emanaldiekin. Kontzertuetarako sarrerak Villabonako Iratzar tabernan eta Tolosako Denak-ene daude salgai, 17 eurotan. Kontzertuetara ez ezik, bazkarira ere joan nahi duenak, 24 eurotan erosi ditzake txartelak.

«AHTri ezetz esateko, desobedientzia»

Egun horretan, Hernanira joan behar dutenei, Villabonatik 10:15 inguruan igarotzen den Renfe konpainiako tren hartzeko deia luzatu dute Villabonako gazte independentistek. Txartela ez ordainduz, AHTren aurka egin nahi izango dute. Izan ere, beraien esanetan, «Renfe Abiadura Handiko Trenaren proiektuan parte hartzen duen enpresa da, eta honi desobedientzia erakutsiko diogu».

MENDI-ALDE
Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak... *Jatetxea*
San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Udan Euskal Herrian zehar jokatutako kanporaketen ostean, etzi izango da Independentziaren aldeko sokatira txapelketaren finala. Bertan, zazpi probintzietako sokatirariak ariko dira lehia. Gipuzkoakoek kolore urdina eramanango dute, eta gisa honetako kamiseta eta zapiak eramateko deia luzatzen dute Villabonakoek. Za-



Pasa den urteko Tolosa Goxua azokaren une bat. P. ALBERDI

Herriko produktu gozosenen erakusleioa etzi

Gastronomia » Sei metroko tarta egingo dute, 2015 txurro banatuko dituzte eta sagara tarta lehiaketa ere izango da.

telarik; 2.015 txurro ere banatuko dituzte txurro dendan 09:30etik aurrera, eta sagar tarta lehiaketa ere egingo dute, 10:00etatik 11:00etara aurkeztu ahalako duela-rikedonork.

Esklerosi anizkoitzaren alde

Bestalde, azokaren baitan, Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren elkarteak erakusmahai jarriko du. Bertan, 09:00etatik aurrera, Gorrotxategi konfitegiak emandako txokolata eta Arruabarrenagozok emandako gozoak izango dira aukeran, 2 euroko prezio sinbolikoan. Ekimen honekin, dirua bil-tzeaz gain, jendea sentsibilizatu nahi dute gaixotasun honen aurrean. Hala, Gorrotxategi eta Arruabarrena etxeak eskertu nahi izan dituzte «euren laguntzarik gabe ez zelako posible izango hau egitea».

ERREDAKZIOA

Tolosako gastronomiako produkturik gozosenak dastatzeko eta kalitatezko gozogintzako berrietasunak interesgarrienak ezagutzeko aukera izango da etzi, Tolosa Goxua azoka berezian. San Frantzisko pasealekuak hartuko ditu, hain zuzen ere, Gorrotxategi, Casa Eceiza, Gorostidi, Gozona eta Saizar gozotegien produktua goiz osoan.

Hala hainbat ekimen izango dira, eta bereziana, sei metroko tartarena, eguerdian banatuko du-

Etzi izango da Kirol Gaua, «drogarik gabe gozatzeko» xedearekin

Kirola » 20:00etatik 01:00etara basket 3x3, areto futbola, cycling, afaire, karting, musika eta argi graffitiak izango dira.

tatu baitute (txartelak Usabalen eta Gazte Topagunean 12 eurotan), eta DJ baten saioa ere izango da. Kirol jardueren baitan, basket 3x3, areto futbol partida eta cycling izango dira. Haeuz gain, kart-ak, goming-lanzadera, dantza, Lain taldearen kontzertua eta Light Graff session izango dira. Haeukin lotuta, tailerrak egiteko aukera ere zabalik dago.

Sariak ere izango dira; Liverpoolera futbol partida bat ikustera joateko aukera eta Bruesa taldea ikustera joateko hiru harpidetza.

Aurtengo berrikuntza Light Graff session izango da, hau da, argi-ekin egindako graffitiak. Teknika berri honen berri ematen eta sortzen laguntzen GKO Galeriarren kideak egongo dira.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udaleko Gazteria eta Kirol sailak antolatuta, etzi izango da Kirol Gaua 0'0 Usabal kiroldegian. 13 eta 30 urte bitartekoei zuzenduriko ekimen honen helburua «gazteak ongi pasatzea eta gozatzeko da, drogen kontsumoa alde batera utzita».

20:00etan hasi eta 01:00ak arte iraungo du. Kirola egiteko aukera zabalago izango da, baina ez da kirola bakarrik izango, afaire bat ere pres-

SUSANA LARRE ETA MIREN LAZKANO » Liburutegiko langileak



I. TERRADILLOS

«Erabiltzaileen fidelotasuna saritzea da gure helburua»

Gizarte » Liburutegiaren Nazioarteko Eguna izango da bihar, eta horren harira hainbat ekintza egingen ari dira aste osoan zehar: zozketak, opariak eta 'Ipuin Txokoa', besteak beste.

IÑIGO TERRADILLOS

Bihar ospatzen den Liburutegiaren Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekintza burutuko dituzte liburutegietan hauen erabilera sustatzeko helburuarekin. Tolosan ere, ekimenarekin bat eginez, aste osoan zozketak egingo dituzte eta opariak banatu dituzte. Susana Larre (Donostia, 1973) Udal Liburutegiaren arduradunak eta Miren Lazkano (Amasa-Villabona, 1968) Liburutegiko laguntzaileak azaldu dute horien helburua zein den, eta Udal Liburutegiaren egungo egoeraz hitz egingo dute. Bertan, beraiekin batera, Marilu Mitxelena eta Iñaki Goikoetxeak Haur Liburutegian, Arantza Lopezek eta Karlos Linazasorok Helduen Liburutegian eta Ane Zaraguetak eta Jon Olaetxeak Udako Usabalgoko liburutegietan egingo dute lan.

Zein helburuarekin antolatzen dituzte ekintza horiek?

Susana Larre. Liburutegiaren Eguna dela eta, zerbait xumea egin nahi genuen. Izan ere, gure helburua ez da data zehatz batean liburutegira jendea erakartzea, guk, nolabait, fidelotasuna saritu nahi dugu, hau da, maiztasun batekin maileguak hartzen dituen jendea. Horregatik aste guztian zehar maileguan zerbait hartzen dutenak zozketan sartuko dira. Haur Liburutegiaren kasuan, bertako kamiseta eta liburuak zozketatuko ditugu, eta Helduen Liburutegiaren kasuan, liburuak. Horretaz gain, astean zehar liburutegi txartela atera dutenek oparitxoak jasoko dute.

Bestalde, pasa den urtean irakurketa gida bat atera genuen, eta aste honetan liburu horiek eskura jarri ditugu.

Irakurzaletasuna sustatzeko ere badituzte ekimenak.

S. L. Bai. Iaz ikusi genuen *Ipuin Txokoa* ekintzarekin irakurzaletasuna haurrengan bultzatzen dela, eta horregatik, Liburutegiaren Egunarekin bat eginez, astelehentik hasi ginen martxan jartzen. 3-6 urte bitartekoei eta euren gurasoei zuzendua dago; ipuin kontalaria ipuinak kontatzen ditu, eta gurasoek ikusi eta ikasten dute nola egingen duen. Horretaz gain, zein liburu aukeratu ditzaketen gero etxean haurrei ipuinak kontatzeko baliagarria da. Helduek lagundutako 0-4 urte bitarteko harrentzako espazioan, Txiki Txokoaan, jartzen dugu ikusgai ipuinen zerrenda. Ekimen hau irakurketarekin kontzientziazteko modu bat dela esan daiteke.

Jendeak, orohar, ba al du liburutegia erabiltzeko ohitura?

S. L. Haur Liburutegiak martxa handia du, eta oso pozik gaude. Ikastetxeekin elkarlanean gauza asko egingo ditugu eta horrek ere eragina du. Helduen Liburutegian, bestalde, aldaketa batzuk ari gara egingen eta erabiltzaileen igoe-


ra nabaritzen ari gara, beraz, gustura gaude. Gainera, aurtengo udatik, Tolosako Udal Liburutegiko zerbitzua Usabal kiroldegira ere hedatu dugu. Denera bi hilabeteetan 100 bazkide berri egin ditugu bertan, eta jendeak asko eskertu duen zerbitzua izan da. Pozik gaude honekin, eta hobetzen joango den zerbitzua izango da.

Zertarako erabiltzen du batik bat liburutegia jendeak?

Miren Lazkano. Haur Liburutegia denetarako erabiltzen dela esan daiteke: irakurri, film bat ikusi, etxeko lanak egin, mikroteka zerbitzua erabili, ikastaroak egin... Helduena, berriz, Interneten nabigatzeko, ikasteko, lanak egiteko, informazioa bilatzeko, maileguak egiteko edota filmak hartzeko erabiltzen da, batik bat.

Irakurzaletasun badagoela uste al duzue?

M. L. Bai. Nire ustez, jendeak irakurtzen du. Haur Liburutegian asko irakurtzen dute gaztetxoek. Aranburura gerturatzen diren nerabeek, bestalde, irakurri behar dituzten liburuak irakurtzen dituzte gehien bat, baina helduagoek badutela ohitura ikusten dugu, eta berrikuntzak zeintzuk diren jakiten dute, eta horregatik galdetzen dizute.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Mintzalaguna egitasmoa abian jarri dute aurten ere



Mintzalaguna proiektuan zein euskara ikastaroetan parte hartu zutenek afaria egin zuten ikasturte amaieran. HITZA

Villabona-Zizurkil » Iazko arrakasta ikusita bultzatu dute berriro proiektua bi udaletako Euskara Zerbitzuetatik.

promisoa hartuko dute asteen behin, gutxienez ordubetez, euskaraz aritzeko elkarrekin, kafe bat hartu, kirola egin, paseatu edo nahi duten jarduerak egiten duten bitartean.

Iaz abiatu zuten egitasmo berri hau bi herrietako Euskara Zerbitzuek elkarlanean, eta «oso positibotzat» jo dituzte lortutako emaitzak. Izan ere, 25 lagun bildu ziren guztira, 8 taldetan banatuta.

Diru laguntzak

Bestalde, Villabonako eta Zizurkilgo euskara teknikariek jakinarazi nahi dute aurten ere bertako Udalen matrikularen %75 arteko diru laguntzak emango dituztela euskara ikastaroetan matrikulatuta dauden ikasleentzat. Eta, lehengo urtean bezalaxe, aurten ere, diru

laguntza jasotzeko baldintza guztiak betetzen dituenak eta horrez gain ikasturte osoan zehar Mintzalaguna egitasmoan parte hartzen duenak %85 arteko diru laguntza jaso ahal izango duela.

Era berean, adierazi dute Mintzalaguna egitasmoan parte hartzeko laguntzaile euskaldunak behar dituztela, eta hilaren 29an, 19:30ean, bilera bat egingo dela interesatuen guztiak, Villabonako udaletxeko gela polibaleantean (liburutegiaren gainean). Informazio gehiago nahi izanez gero, hona jo daiteke: Villabonako Euskara Zerbitzua, 943 693 501 zenbakian edo euskara@villabona.net helbideran, edo Zizurkilgo Euskara Zerbitzua, 943 69 24 95 zenbakian edo kultura@zizurkil.com helbideran.



Iazko Rolleski Igoeraren zenbait parte-hartzaile ahaleginean. JOXEMI SAIZAR

70 parte-hartzaile inguru espero dituzte 8. Rolleski Igoeran

Hernalde » Etzi egingo dute lasterketa, 16:00etan hasita, eta bi modalitatetan: patinatzaile eran eta klasikoan.

I. GARCIA

Tolosako Alpino Uzturre elkarteko antolatua du beste behin Hernaldeko Rolleski Igoera. Zortzigarren aldia izango da aurtengoa. Etzi, larunbata, izango da lehiaketa eta 16:00etan hasiko dira. Antolatzaileek azaldu dutenez, «70 parte-hartzaile inguru» espero dituzte.

Parte-hartzaile kopuru horixe izan zen iaz parte hartu zuena. Ohienez, bi modalitatetan lehiatuko dira kirolariak: patinatzaile eran egingen dena eta klasikoan. Azken hauek Hernaldeko Bentatik abia-

tuko dira, hau da, Hernalderako bidea hasten den lekutik. 3,2 kilometro egin beharko dituzte. Besteak, patinatzaile eran lehiatuko direnak, Tolosako Belate auzotik hasiko dira eta 4 kilometro inguru egin beharko dituzte.

Lehiaketa parte hartzen duten guztiak kamiseta jasotzen dute eta merienda ematen zaie Hernaldeko elkartean. Irabazleek gazta bana jasotzen dute sarritan.

Parte-hartzaileak batez ere Gipuzkoatik eta Nafarroatik joango dira. Beste leku batzuetakoak ere izango dira. Benasque eta Jakakok, esaterako. Iraupen eskian aritzen direnek elurra ez dagoenean praktikatzeko dute rolleskia.

Hernaldeko Udalak, bere alde-tarte horretan, auto gidariei errepidean kontuz ibiltzeko oharra zabaldu du.

ERREDAKZIOA

Villabonako eta Zizurkilgo Euskara Zerbitzuek Mintzalaguna egitasmoa jarri dute martxan aurten ere. Helburua da euskara ikasten ari direnei, edota gaur egun ikasle izan gabe, euskaraz hitz egiteko ohitura eta erraztasuna landu nahi duten herritarrei, kalean hitz egiteko konfiantza hartzen laguntzea. Horretarako, hiru laguneko taldeak osatuko dira, bi euskara-ikasle eta laguntzaile euskaldun bat. Talde hauetako kideek kon-

Pixix, Porrox
eta Marihotxs

PANPINAK

DVD berria
etxeko txikiak
jolasteko



DVDa
(posterra opari)
18€



Panpina bakoitza
(txapa opari)
20€

Egin eskaria amaizu baino lehen
902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info
adierazi harpidetza kodea

hitza

Xakearen txokoa jarriko du abian Anoetako Udalak

ERREDAKZIOA

Xakearen txokoa antolatua du Anoetako Udalak, «familia osorako, klub baten antzekoa, xakean jolasten ondo pasatzeko». Udaletik azaldu dutenez, «erabat ludikoa izango da, denbora pasatzeko. Ez da derrigorrezkoa ostiralero joatea, baizik eta nahi denean, inongo konpromisorik gabe».

LH1 eta LH6 bitarteko ikasleentzat izango da. Azaroaren 14tik ekainaren 5era, guztira 23 egun, ostiraletan 18:30etik 19:30era eta Hozpel Kaleko udal lokalean. Kartea emango zaie partaideei (bat famili bakoitzeko), eta baita kamiseta ere. Prezioa 10 eurokoa izango da eta udaletxean edo kiroldegian eman behar da izena hilaren 30a baino lehen.

Asteburuan 'Herria Kantuan' DVDa eta Dantzari Txiki Eguna izango dira

Alegia » 'Udazkenean Kultura'-ren baitan, ekainean herritarrek egindako emanaldia ikusi ahal izango da etzi.

NEREA URBIZU

Alegian prestatutako kultur saskia hasi dira hustutzen, eta herritarrek ekitaldiez gozatzen hasi dira. Joan den asteburuan Txintxarriren kontzertua eta II. Barazki eta Animalia azoka izan ziren: hasiera paregabea, inondik inora.

Etzi, hasiera handi horri bidea eginez, ekainean Kultur Etxean egin zuten *Herria kantuan* emanaldiaren proiektzioa izango da ikusgai 11:00etan Kultur Etxean. Antton Iztueta eta Eduardo Harrayet aritu dira DVDa prestatzen. «Emanaldi hau egin genuenean jende asko erakarri zuen», diote kultur batzordekoek. Herritarren gustukoa izateaz gain, «jende asko kanpoan gelditu zen», leku eta txartel faltan, hain zuzen ere. Horregatik erabaki zuten emanaldia DVDan bada ere, berriz ikusteko aukera ematea, ikusi gabe gelditu ziren horiengan pentsatuz.

Antton Iztueta kaureretik prestatuta dauzkan kantuak jarri zituen, hasieran (Trapu Zaharrak) eta bukaeran beste bi, denen artean abesteko. «Horretaz gain, saioa grabatu egin zuen». Edu Harrayet argazkiak ateratzen aritzeaz gain, Antton Iztueta erekin batera DVDa prestatzen aritu da.

Dantzari Txiki Egunean 200 dantzari inguru

Alegian dantza egiteko plaza eta leku apropos ugari daude, herriko plaza falta izanagatik ere, hau ez da oztopoa izan. Dantza taldekoek onartzen dute, «plaza herrigunean egotearekin jendea ikustera joate-



Iaz ere Dantzari Txiki Eguna antolatu zuten eta aurten bezala herri askotako dantzariak elkartzeko dira. NAIARA GARZIA

ko errazago dela. Baina bi plaza hauekin ondo moldatuko gara, noski». Baina hala ere, seguru jendea Kalebeherara ere joango dela.

Antton Iztueta eta Edu Harrayetek osatu dute etzi ikusi ahal izango den 'Herria Kantuan' DVDa

Dantzari txikiak Larraitzen eta Kalebeheran eskainiko dute saioa

Igandean 200 dantzari inguru bilduko dira Alegian, goizean goizetik hasita. Izan ere, 10:00etan bilduko dira eskolako patioan.

Alegian, bertakoak, Anoetakoak, Irura, Lizartza, Tolosa, Urnieta eta Villabonako dantzariak ariko

dira. Festa giroan, eskola zaharretan bilduko dira denak eta herrian zehar, kalejira eta kalejira artean dantza talde bakoitzak bi dantza eskainiko dituzte: bata Larraitzeko plazan, eta bestea Kalebeherako parkean.

Beste herrietatik datozen dantzariak dantza taldeak antolatutako autobusetan hurbilduko dira herrira, eta hala joango dira ere. Lehenengo dantza saioa, beraz, Larraitz auzoan egingo dute, kalejira eta guzti. Ondoren, frontoian, dantza taldeak prestatutako hamaiketakoak izango da, indarrak hartu eta dantzatzeko jarraitzeko.

Goizean goizetik dantzariak

10:00etan, beraz, eskolako patioan elkartzeko dira gero dantzan hasteko. Bertako plazan herri bakoitzetik etorritako dantza talde bakoitzak dantza bana eskainiko du.

» IGANDEKO EGITARAUA

Dantzari Txiki Eguna

■ **10:00.** Dantzariak eskolako patioan elkartzeko egingo dira.

■ **10:30.** Kalejira Larraitz auzoan zehar. Bertako plazan herri bakoitzeko dantza taldeak dantza bat egingo du.

■ **Ondoren.** Elorri frontoian hamaiketakoak egingo dute.

■ **Jarraian.** Kalebeherako parkera joango dira kalejiran. Herri bakoitzak dantza bana eskainiko du. Aurretik, *Agurra* eta bukaeran Fandango eta Arin-arin dantzatzeko dute denen artean.

Handik Kalebeherako parkera joango gara kalejiran.

*Udazkenean Kultura*ko datoren ekitaldia *Ipar Potosirekin* bat proiektzioa izango da.

Bihar eta etzi Probintzialeko pilota partidak ikusteko aukera izango da

ERREDAKZIOA

Etzi Aurrera-Saiaz pilota eskolakoek bi partida jokatuko dituzte Tolosako Beotibar pilotalekuan. Senior mailako Aizpitarte-Albisu bikotea ariko da Ilunpeko bikotearen kontra, 10:30etik aurrera.

Ondoren, Apezetxea jubenilaren txanda izango da, Arrasateko pilota eskolako jubenil baten aurka.

Bihar Amezketan Zazpi-Itturriren lau norgehiagoka izango dira, 20:00etan hasita eta laurak binakako senior mailakoak izango dira. Alegian ordu berean partida bat izango da kadeteen mailan.

Alegiako Zazpi Astoren Gainean bertso eskolan parte hartzeko aukera, gaur

ERREDAKZIOA

Zazpi Astoren Gainean Alegiako bertso eskola hasi da klaseetan, ostegunero 20:00etan: hortaz, gaur elkartzeko dira berriz Intxurre elkartearen. Nahiz eta klaseetan hasita dauden, bertsoan ikasi eta ondo pasatu nahi duenak aukera badu: «Ongietorria izango da».

Bestalde, Udazkenean Kulturaren baitan, azaroaren 28an bertso-poteoa eta ondoren elkartearen bertso-afaria antolatu dituzte. Bertso-poteoan Alegiako trikitilariak izango dituzte. Txartelak herriko tabernetan egongo dira salgai eta antolatzaileek diotenez leku asko ez dagoenez jendea azkar ibiltzea komeni da.

txokoa

Sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratu

BRUESA GBC
Tau Ceramica
IGANDEA
26 URRIA 12:30
ILLUNBE

SAN SEBASTIAN GIPUZKOIA BASKET CLUB

2 bonu pare

zozketan, deitu eta eskuratu

Independentzia eguna Hernanin

Hernanin
urriak 25, larunbata

2 sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratu

"Teresa Salgueiro eta Lusitania Ensemble"

Tolosako Leidorren
urriak 25, larunbata
20:30etan

Realaren kontrako partida du igande honetan Gari Urangak

Ibarra » Ibarratarrak ez daki oraindik jokatu ahal izango duen; arazo fisikoak dituzte eta ordezko bezala etorriko da Donostiara.

ERREDAKZIOA

Gari Uranga Ibarra futbol jokalaria Donostian izango da igande honetan, izan ere Castellon eta Realaren arteko partida dago Anoetan 17:00etan.

Urangak, hala ere, ez daki oraindik jokatu ahal izango duen arazo fisikoak baititu. Jokalariak esan duenaren arabera, egun berezia izango da igandekoa Realarekin eman dituen 16 urteak ahaztea zaila baita Ibarraokarentzat.

Hasiera batean Castelloneko Abel Resino entrenatzaileak Uranga jarri nahi zuen titular moduan Realaren jokatzeko moduaren inguruan dakien guztia dela

eta, baina aurreko partidaren, Levanteren kontrakoan, Donostiara etortzeko egoera onean egon ahal izateko jokatu ez bazuen ere, badi-rudi ez dela guztiz osatu. Horrexegatik Ibarraok oso argi du ordezko moduan egon beharko duela eta gehienez bigarren zatian minutu batzuetan bakarrik jokatu ahal izango duela.

Baja ugari

Realarentzat partida zaila izango da igandekoa, izan ere Xabi Prietoren eta Gorka Elustondoren bajei Marcos Garciaena batu behar zaio eta baliteke Sergio Rodriguezen belaua ere ez osatzea igandea baino lehen.

Castellonentzat, bere aldetik, partida polita izango da Igandekoa Mario Rosas jokalaria hitzetan. Futbolariak esan duenez, Realaren zelai «ikusgarrian» jokatzeko oso aukera polita eta garrantzitsua da bere taldearentzat.



Uranga ez da guztiz osatu eta Anoetan ordezko bezala arituko da. I. TERRADILLOS

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Artzain txakurra galdudugu, Tolosako tren geltoki inguruan. Ikusi duenak dei dezala honako telefono zenbakira: 627 459 919.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxea salgai Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Deitu 657 230 011 edo 634 919 482 telefono zenbakietara.



Josetxoren erailketa gogoan

IBARRA » 1981. urtean erail zuten Guarda Zibilak Joxe Jauregi Altube, Josetxo, ibartarra Pasaia kontrol batean Andres Gogorza, Gogor, etakidearekin zihoala. Hogeita zazpi urte pasa dira orduztik, baina bere jai-

terrian ez dute ahaztu eta herenegun, erailketaren urteurren egunean, omenaldia egin zioten. Hilerrian lore eskaintza egin zioten lehenik eta ondoren Aranera joan ziren eta omenaldia egin zioten. r.c.alvo

Kultur Hamabostaldia hasiko da bihar

Orexa » Urteroko moduan ekitaldi ugari antolatu dituzte herrian azaroaren 8a bitarte: kantaldiak, hitzaldiak, antzerkia...

ERREDAKZIOA

Urteroko moduan Kultur Hamabostaldia antolatu dute Orexan. Adin guztietako jendeari zuzendutako ekintzak prestatu dituzte eta euren helburua orexatarrez gain inguruko herrietako jendea herriragerturtea da.

Berez atzo ziren hastekoak kulturari eskaintako hamabostaldia-ekin, baina hizlariak, Pettan Irola artzaina ezin izan zen Orexaragerturatu eta ondorioz, oraingoz behintzat, bertan behera geratu da artzainak eman behar zuen *Base-rria iparraldean. Artzain baten lekukotasuna* hitzaldia.

Bihar ostirala berriz, gazta kata gidatua antolatu dute 20:00etan eta horretarako Bittor Rodriguez gerturatuko da herrira. Bromatologian eta elikaduran aditua da Rodriguez. Larunbatean, hilak 25, Anje Duhaldek kantaldia eskaini-

ko du 22:30ean. Errobi talde ezaguneko kantari izandakoak emenaldia eskainiko du. Igandean 09:00etan abiatuta Uitz eta Orexa bitarteko ibilaldia antolatu dute eta ondoren, 14:00etan, herri bazkaria izango da. Bazkalostean, gainera, *Berto Zirkuitoa* bezala baitaiatu duten kantu saioa egongo dute Antton Iztuetaren zuzendaritzapean.

Ekonomia hizpide

Hilak 28an 21:30ean *Abiadura Handiko Krisia* hitzaldia eskainiko du Joseba Barandiaranen ekonomilariak. Barandiaranek munduko ekonomian gertatzen ari diren gora beheren zergatien inguruan mintzatuko da, besteak beste.

Hilaren 30ean Anjel Cuervo tolosarrak Hegoameriketara egin dako bidaiaren berri emango du *Hegoamerika motoz Cheren bide-tik* ikuskizunaren bidez. Ostiralean, hilak 31, aldiz, Bazen Behin Clown taldeak *Eta, zergatik ez?* izeneko ikuskizuna eskainiko du 21:30ean. Taldeak, Peio Arnaezen zuzendaritzapean, minusbaliotasunaren gaia jorratzen du lan honetan. Azaroaren lehen 21:00etan herri afaria izango dute eta ondoren Txutxin Ibañezek emenaldia eskainiko du. Rantxera doinuak ekarriko ditu Ibañezek Orexara eta ondoren, DJ Bullek era guztietako musikarekin jarraituko du giroa alaitzen.

Orexako Kultur Hamabostaldia azaroaren 8an amaituko da; 16:30erako gaztain biltzea antolatu dute eta ondoren afari-merienda izango dute.

Langostino Moto Kultur Elkarteko irteera izango da igande honetan

Ibarra » 09:30ean aterako dira San Bartolome plazatik eta Nafarroarako bidea hartuko dute.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Langostino Moto Kultur Elkarteak beste irteera bat antolatu du igande honetarako. Urteko zortzigarren ibilaldia, beti egiten duten bezala, 09:30ean aterako da herriko San Bartolome plazatik.

Horiek horrela, Ibarrik aterata Nafarroarako bidea hartuko dute errepede zaharretik, hau da Lizartza pasata Betelu, Lekunberri, Irurtzun, Errotz, Atondo, Valdegoñi, Anotz, Lizarbe, Olo, Ardetta eta Goñi pasako dituzte. Ondoren, Estebarena etxean hamaiketako egingo dute. Ibarrako bidea hartuko dute berriz ere hamaiketako eta gero honako ibilbidea eginaz: Urdanotz, Azantza, Saldise, Anotz, Atondo, Irurtzun, Madotz, Oderitz, Astiz, Alli, Lekunberri, Uitz, Leitza eta Berastegi. Ibarra 13:30etarako itzuliko dira motozaleak.

Kultur elkartetik argitu dutenaren arabera, zenbat parte-hartzaile izango diren jakitea oso garrantzitsua da eta horregatik izena emateko bi modu jarri dituzte *langostinomotofesta@gmail.com* helbidera idaztea edota 630 784 213, 670 417 915 eta 636 403 170 telefono zenbakietara deituta. Parte-hartzaile bakoitzak sei euro ordaindu beharko ditu.

@ Iritziak, azken ordukoak, inkestak... TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAko web orrialdean eskualdeko azken albisteekin berri izango duzue. Zeuen iritziak plazaratzeko aukera ere izango duzue bertan eta baita inkestetan parte hartzeko modua ere. Larunbatean Tolosan izandako istiluen bideoa ere ikusi ahal duzue: www.tolosaldekohitza.info

G Gutunak

Ibero sutan, eta denak isilik

Lagun batek esan zidan: beti kontu zaharrekin habil, Leitzatik Goizuetara, eta Ibero huke gai aipropo-
sa. Kontseju ona. Kasik inork ez baitu ezagutzen Suteen Kontrako Elkartea Leitzan. Kontuak historia luzea du, eta saiatuko naiz lau puntutan biltzen:

1) *Legez beti ilun:* Nork eta zertarako sortu zuen? Udalak 1892an bere buruzagizta (patronato) osoan, herriaren onerako (benéfica y no lucrativa) eta herritarrek elkarri (mutua) laguntzeko. Udaletxean biltzen zen, Udaleko buruak berak zirela Elkarteko buru. Hala, sortze beretik, bere ordezkari-
tzara legala baliatu zuen Udalak, batere nekerik gabe, herri ondasunak Elkartearen interes pribatu bihurtzeko.

Sortu eta ehun urtera, 1987an, Artxanko abokatu jaunak legez «atípico» dela esanez utzi omen zuen. Eta 2007an, berriro 17.000 eurotik gora gastatu omen ditu El-

karteak bere egoera legalari zutik ezin eutsiz. Hala ere, ezin guzien gainetik, badirudi erabat pribatibo eta lukratibo ikusi nahiluketelabatzuk, beti herridirutik bizi izandako Elkartea. Nola ulertu bestela, Iberokoen truke herri inguruan permutak egiteko sozio bakoitzak Udaletxean hasi omen dituen tramiteak?

2) *Herridirutik beti mahuka:* Hasteko, 1892an Gamondarrek Ibero saldu zutenean, Udalak 11.500 pezeta jarri zituen, eta gainera Iberoko ondasun guziaz Elkarteari utzi, operazio bihurri baten bidez, Diputazioa bera tarteko zela. Berriz atzera, 1898an, Udalaren operazioa tarteko, Urdiñolako ondasun guziaz bereganatu zituen Elkartea. Portzierto, azkeneko honek zertan bukatu zuen?

Berehala (1899-1915), argindar elektrikoen sorrera zela eta, mahuka ederra atera zuen Elkartea bi ola zahar baliotik: presak, kanalak, ur saltoak eta abar... industria berrira egokitzeko salduz. Hori guziaz, etxe, ola, labe,

errota, baso, egur, ikatz, teila, edo lurren errentak kontatu gabe. Zifrak galantak baitira.

Eta, hain abudo gizendu zen Udaleko mahuka honetatik Elkartea, non bere abusoa disimulatze-
ko 1916an sozio artean 15.000 pzta banatu zituen. Auskalo nola, baina kontua da, berez herridiru hutsa zen zaku haundi hura, poltsa pribatu-
tara hustu zela.

Horrez gainera, 1796tik zekadoren ohiturari esker, etxerik erretzen zen bakoitzean 375 pezeta pagatzen zituen Udalak, teila eta zuraje guziaz gainera.

Nola ez ba dirua aurreratu Elkartea, alde batetik ondasun eta diru-iturri guziaz Udalak jarri, eta bestetik gasturik haundienak ere Udalak berak pagatuz gero!?

3) *Barrenak purgatzeko premia:* Elkartea 1919an desegin eta berriz sortu zenean, 224 etxe baziren sozio, Leitzako herri osoa, esaterako. Orain zenbat sozio dira? Eta auzi honen muina: ateratakoak nola atera dira? Eta gelditutakoak nola segitu dute gaur arte? Inguruan

antzeko elkarte guziaz, aspaldi desegin baitziren. Goizuetako Alkartasuna, esate baterako.

Puntu bat aipatzeko, estatutuetan, 27. artikulua dio, etxea beste nonbaitean aseguratuko ezker, eskubide guziaz galtzen dituela sozioak. Beraz, horrexegatik baka-
rrik bada ere, aspaldi desegina bezar zuen Elkartea. Baina ez, badirudi gutxi batzuren interes pribatuak eutsi diola egoera absurdo honetan.

Nola ulertu bestela, 2004ean oraindik, aspaldi zaharkitutako estatutuak salbatu nahian aldatu diren bi puntuok: «1-Elkartea erabat desbinkulatu da Udalagandik, ez baitu haren Patronaturiko». Noski. Bestela nola saldu Ibero berari gero?

«2-Elkarteko ondasunak aldi berean beste nonahi asegura litezke». Aspaldian ongi asko eginak ez baleude bezala!... Ikusten noraino ekarri den hasierako udal patronatuaren benefikio ez lukratibo hura? Eta zeinen ederra, isiltasun politiko unanime hau, reketu zaharretatik

hasi eta iraultzaile gazteetarako abaniko osoan! Badakizu: denak herriaren alde!

4) *Barka, nire atrebentzia:* Elkartea honen sorrerako izpirituari eta diru iturriari begiratuz, bi eginkizun larri datoz burura, gizalege huts hutsez: a) Inbentario zehatza egin, eta hasiera hasieratik sozio izan den bakoitzari merezi duena itzuli, sari edo zigor, bere proportzioan.

b) Gainerako diru eta ondasun guziaz, bai bankukoak bai Iberokoak, Leitzako herriari itzuli, eta ixil-ixilik gainera. Inorenak izatekotan, harenak baitira, bidean poltsa pribatu-
tara galdutakoak galdu.

Kontuak horrela eta edozein interes pribatu saihestuz, komisio zorrotza sortu beharko luke Udalak, lotsagatik ere, auzi absurdo hule lehenbailen eta behin betirako likidatzeko. Inork ez baitu horretarako, ez eta Elkartea berak ere, Udalak adinako autoritate moralik.

Patziku Perurena. Leitza.

'Bihar osteguna da' antzezlanak ikusteko aukera etzi Leitzako zineman

A. IMAZ

Txinparta antzerki taldeak Leitzako kultur taldearen laguntzarekin, *Bihar osteguna da* antzezlanak aurkeztuko du etzi, urriaren 25ean, Leitzako zineman. Emanaldia 19:00etan hasiko da eta herritar guztiak gonbidatu dituzte antolatzailerak antzerkiaren bitartez ongi pasatzera.

Zuzendari eta antzezleak

Zuzendaritza lanean Lur Korta aritu baldin bada, oholtza gainean ikusiko ditugun antzezleak ondorengo hauek izango dira: Beñat Uharte, Jaione Mariezkurrena, Maite Mariezkurrena, Maite Perurena, Juani Barriola, Orkatz Erbiti, Jokin Baucis eta Koldo Lebron.



Amaia Zinkunegiren ipuinen babesean

ALEGIA • Amaia Zinkunegi ipuin kontalaria egon zen atzo liburategian, *Udazkenean kultura 2008* ekimenaren barnean. Haurrak zintzo demonio zeuden berari begira, gurasoak aldiz liburutegi ondoko gelan, txikienei atsedenaldi bat emanaz. Amaia Zinkunegik istorio ugari kontatzeaz gain,

haurrak kantuan eta txaloka jarri zituen. Udazkeneko kulturaren hostoak etzi eroriko dira berriro Alegian. 11:00etan hasita, *Herria kantuan* emanaldiaren proiektzioa eskainiko dute Antton Iztueta eta Eduardo Arroyet-ek. Igande goizean berriz, Dantzari Txiki Eguna ospatuko dute plazan. **A. IMAZ**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaaldia

■ **Belauntza.** *Etxeko arriskuak eta lehen laguntzak* Kultur Etxean 17:00etatik aurrera. Etxean gerta daitezkeen arrisku eta istripuen berri eman nahi da, behar bezalako prebentzio-neurriak hartzeko eta halako egoeraren bat gertatzen denean nola jokatu jakiteko.

■ **Irura.** Zaharren Biltokian 17:30ean Garbiñe Agirrerren eskutik *Pixari ezin eutsi* hitzaaldia izango da.

■ **Tolosa.** Torturaren Aurkako Taldearen abokatua den Aiert Larralde Lasa eta Zabalarri buruzko hitzaaldia emango du, 19:30ean Kultur Etxean.

Deialdiak

■ **Alegialdea.** Idoia Santxez tolosarra ipuinak kontatzen ariko da Ikaztegieta liburutegian 17:00etan eta Baliarrago liburutegian 18:30ean.

Zinema

■ **Tolosa.** *Sueños del desierto* filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Sasoi berrietarako ezkatak

HITZA, arropa berria »

Sasoi berrietarako HITZAK prestatutako arropa dagoeneko eskuratu daiteke ohiko lekuetan

ERREDAKZIOA

«Esaldia arraina da, eta hitza ezkata». Hitz horiekin hasten da Hedoi Etxarte iruindarrak oraintsu argitaratu duen *Suzko lilia* liburuko poema bat, eta esaldi hori hartu dute oinarri HITZAK aurtengo udazkenerako eta negurako prestatutako arropa ezagutarazteko: sasoi berrietarako ezkatak.

Hedoi Etxartek dioen moduan, hitza ezkata baita. Ezkata, eguneroko orrialde bakoitza, informazioaren itsaso zabalean. Hitza, ezkata, jantzi gaitzen.

Udazken eta negurako arropa

Ohi bezala, haur, gazte zein helduentzat pentsatutako diseinuak eta koloreak dira oraingoak ere, gustu guztiak asetzeko asmoarekin sortutakoak. HITZAREN ohiko irudia zabaldu, eta gaur egungo mantxetaz gain, HITZAREKIN lotutako irudiak ekarri dituzte berriro ere diseinu arduradunek arropa berrietara.

Mauka luzedun elastikoak, gazte zein helduentzako jertseak, haurrentzakoak... denboraldi berriaren ere denetarik aurki daitezke HITZAREN arropa eskaintzan.



Elastikoak, jertseak, fularrak, zirak, jakak edota buffak aurki daitezke HITZAREN arropa berriaren artean. A. BELAUNZARAN

» SALNEURRIAK

- **Haurrentzako jertsea.** 20 euro (harpidedun ez direnek, 25 euro).
- **Gaztetxoentzako jertsea.** 20 euro (harpidedun ez direnek, 25 euro).
- **Mauka luzedun elastikoak.** 15 euro (harpidedun ez direnek, 18,75 euro).
- **Negurako jakak.**

45 euro (harpidedun ez direnek, 56,25 euro).
■ **Zirak.** 15 euro (harpidedun ez direnek, 18,75 euro).

Webgunean ikusgai

■ **www.hitza.info.** Webgunean ikusgai daude gainerako arropen eta osagarrien argazkiak, neurriak eta salneurriak.

A Agurrak



Urte askoan!

Enaitz Artola (Albiztur). Zorionak eta muxu handi bat zure lehen urtebetetzean, batez ere Nahiaren partetik.

SASOI BERRIETARAKO EZKATAK

HITZAREN arropa berria salgai

salmenta puntuak

Tolosako DENAK tabernan

HITZAKO Tolosa eta Leitzaiko bulegoetan

arropak ikusgai: www.tolosaldeko-hitza.info

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...